

ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKO AGINDUAREN
EZARPENAREN JARRAIPEN BATZORDEA

ETXEKO INDARKERIAREN
BIKTIMAK BABESTEKO
AGINDUAREN EZARPENERAKO
PROTOKOLOA



GENERAL DEL PODER JUDICIAL FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO



CONSEJO GENERAL
DE LA ABOGACÍA



CONSEJO

CONSEJO GENERAL
DE PROCURADORES



GOBIERNO DE CANARIAS



JUNTA DE ANDALUCÍA



COMUNIDAD DE MADRID



Gobierno
de Navarra

<u>PREÁMBULO</u>	3
<u>1.- HASIERAKO FASEA: BABESTEKO AGINDUA ESKATZEA</u>	
<u>1.- HASIERAKO FASEA: BABESTEKO AGINDUA ESKATZEA</u>	7
<u>1.1.- BABESTEKO AGINDUA ESKATZEA</u>	7
<u>1.2.- BIKTIMAK INFORMAZIOA ERRAZ ESKURATZEA</u>	9
<u>1.3.- ESKAERA AURKEZTEKO LEKUA</u>	9
<u>1.4.- GOARDIAKO EPAITEGIAREN ESKU-HARTZEA</u>	10
<u>1.5.- POLIZIA JUDIZIALAREN ESKU-HARTZEA</u>	10
<u>1.6.- ATESTATUA GOARDIAKO EPAITEGIRA BIDALTZEA</u>	11
<u>2.- BABESTEKO AGINDUA HARTZEKO FASEA</u>	11
<u>2.1.- ZIGOR AUZI-BIDEAREN HASIERA</u>	11
<u>2.2.- EZIN DA ALDI BEREAN BABESTEKO AGINDU BAT BAINO GEHIAGO PILATU</u>	12
<u>3.-BABESTEKO AGINDUAREN JAKINARAZPENA ETA BETEARAZPENA</u> 12	
<u>3.1.- ZIGOR ETA SEGURTASUN-NEURRIAK</u>	12
<u>3.2.- NEURRI ZIBILAK</u>	13
<u>3.3.- JURISDIKZIO PENAL ETA ZIBILAREN ARTEKO KOORDINAZIOA</u>	14
<u>3.4.- LAGUNTZA ETA GIZARTE-BABESEKO NEURRIAK</u>	15
<u>3.4- BIKTIMARI LAGUNTZEKO BULEGOAK</u>	16
<u>3.5- ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKO ERREGISTRO ZENTRALA</u>	17
<u>3.6.- ESPETXE-ADMINISTRAZIOA</u>	17
<u>4.- LAGUNTZA JURIDIKOA ETA ORDEZKARITZA PROZESALA</u>	18
<u>5.- BABESTEKO AGINDUA ZABALTZEA</u>	18
<u>6.- PRESTAKUNTZA</u>	18

HITZAURREA

- I -

Gure Prozedura Kriminaleko Legean talde parlamentario guztien ekimen baten ondorioz izapidetu den eta bi Legegintza Ganberek aho batez onetsi duten Babesteko Aginduaren erregulazio berriak erabateko iraultza dakar etxeko indarkeriaren aurkako borrokan, eskaera bakar bat oinarritzat hartuz ordenamendu juridikoak aurreikusten dituen biktimaren babeserako tresna guztiak (penalak, zibilak eta gizarte-babes eta laguntzarakoak) bateratzen dituelako.

Erreforma garrantzitsu hau, Diputatuen Kongresuaren Osoko Bilkurak 2002ko urriaren 22ko bilkuran "genero indarkeriaren aurrean erantzun integrala emango duten legegintza-neurriak formulatzeko" helburuarekin sortu zuen Azpibatzorde parlamentarioan hasi zen itxura hartzen. Beste zenbait lanen artean, Azpibatzordeak joan zen otsailaren 4an bilera bat egin zuen Justizia eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioekin, eta bilera horretan Justizia Ministroak Talde Parlamentario guztiei tresna judizial berri baten diseinua eskaini zien, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua deiturikoa, delitu horien biktimen babesa eta tutoretza bateratzeko bide gisa.

Hasierako ideia hori abiapuntutzat hartuz, Azpibatzordeak, Talde Parlamentario guztien adostasunarekin, proposamen hori garatu zuen Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Estatuaren Fiskaltza Nagusiko eta Justizia Ministerioko adituez osatutako batzorde tekniko batean. Honela, Babesteko Agindua Azpibatzordeak ateratako ondorioetan adierazitako legegintza-neurrien katalogoan barne hartu zen. Agindu hori sei oinarritzko printzipiotan oinarrituz eratu zen:

- a) Biktima eta familia babesteko printzipioa. Babesteko Aginduaren funtsezko helburua zera da: biktimaren eta familiaren segurtasuna babestea erasotzailearen aurrean. Beste hitzekin esanda, Babesteko

Aginduaren helburu nagusia zera da: biktimak eta familiak segurtasun-sentsazioa berreskuratzea erasotzaileak ondoren egin ditzakeen mehatxu edo errepresalien aurrean. Horregatik, etxeko indarkeriaren kasuetan Babesteko Agindu bat lortzea biktimaren eskubide bat izango da.

- b) Aplikazio orokorraren printzipioa. Epaileak, biktimaren babes ziuartzeko beharrezkotzat jotzen duen bakoitzean Babesteko Agindua erabili ahal izango du, etxeko indarkeriako suposamendua delituzkoa edota hutsegitezkoa den kontuan izan gabe.
- c) Presa printzipioa. Babesteko Agindua ahal den bizkortasun handienarekin lortu eta betearazi behar da, bidezko diren prozesu-bermeen eta proportzionaltasun printzipioaren kaltetan izan gabe. Beraz, ahalik eta prozedurarik bizkorrena bideratu behar da, epaileak gertakariaren gorabeherak egiaztatu eta biktima babesteko bidezko neurriak berehala ezar ditzan.
- d) Eskuragarritasun printzipioa. Babesteko Agindua eraginkorra izan dadin, bideratuko den prozedura ahal den bezain erraza izango da, etxeko indarkeriako delituen biktima guztientzat eskura egon dadin. Beraz, aginduaren eskaera bakuntasun-irizpideetara egokituko da, biktima, bere ordezkariak eta abar Epailearen aurrean erraz bertara daitezzen Agindua eskatzeko, kostu handirik gabe.
- e) Osotasun printzipioa. Epaileak Babesteko Agindua eman orduko, biktimak aldi bakarrean eta automatikoki babeserako estatutu integral bat lortuko du, neurri penalak, zibilak eta gizarte-babeseakoak bilduko dituen tutoretza-ekintza abiaraziko duena.
- f) Baliagarritasun prozesalaren printzipioa. Babesteko Aginduak, gainera, Polizia Judizialaren jarduna eta dagokion instrukzio kriminaleko prozesua erraztu behar ditu, bereziki frogak bildu, tratatu eta kontserbatzeari dagokionez.

- II -

Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak (2002)5 emakumeak indarkeriaren aurka babesteari buruz egindako Gomendioak (2002ko apirilaren 30ean egin zena), Estatuei gomendatzen die politika nazionalak sartu, garatu edota hobetu ditzatela ondoko elementuetan oinarrituz: biktimen segurtasun gorena eta babesia; indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko ahalmena sendotzea, biktimizazio sekundarioa saihestuko duten sostengu eta laguntzarako egiturak martxan jarri; Zuzenbide Zibila eta penala egokitzea, prozedurak barne; eta profesionalen prestakuntza espezializatua. Ikus daitekeenez, Babesteko Agindua arautzen duen Legean bildutako printzipioek Europako Kontseiluaren gomendioak kontuan hartzen dituzte, baina harantzago doaz, biktimari babes-esparru integral bat eskainiz.

Babesteko Aginduaren arautzea ezaugarritzen duten bizkortasun, osotasun eta erraztasunak, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko modu batean edo bestean lan egiten dugun guztiok koordinatuta lan egitea eskatzen dute, eta horrela babesia eskatu orduko Ordenamendu Juridikoan aurreikusitako bitarteko guztiak abiaraztea lortuko da.

Erakundeen arteko koordinazio honetan oinarritu da Babesteko Aginduaren Ezarpenaren Jarraipen Batzordearen sorkuntza, Agindu hau arautzen duen Legearen 2. Xedapen Gehigarrian aurreikusita zegoena.

Babesteko Aginduaren Ezarpenaren Jarraipen Batzordea 2003ko uztailaren 22an eratu zen, eta ondoko erakunde eta elkarteetako ordezkariak osatuta dago: Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusia, Estatuaren Fiskaltza Nagusia, Justizia Ministerioa, Barne Ministerioa, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Autonomia Erkidegoak, Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioa, Espainiako Abokatuzaren Kontseilu Nagusia eta Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Kontseilu Nagusia.

Jarraipen Batzordean Protokolo hau lantzen parte hartu dugunon helburu komuna, funtsean, ondokoa da: araubide berrian diseinatutako babes integraleko bitartekoen funtzionamendu egokia ahalbidetuko duten eta elkarren artean erlazionatuta egongo diren elementuak praktikan jartzea, Arlo bakoitzean erakunde edo Administrazio bakoitzaren eskumenekoak diren garapenen kaltetan izan gabe.

Helburu horrek, irauteko asmoarekin eta etxeko eta generoko indarkeriari modu integralean aurre egiteko Etxeko Indarkeriaren aurkako Behatokiaren barruan jaio den konpromisoa dakar.

Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautzen duen Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriak berak adierazten duenaren arabera, Batzorde honi egokituko zaio Babesteko Aginduaren ezarpenerako Protokolo orokorrak lantzea, baita Epaileek eta Auzitegiek eta eskumena duten Administrazio publikoek hartutako babes eta segurtasun-neurrien eraginkortasuna ziurtatuko duten koordinazio-tresna egokiak hartzea ere.

- III -

Egin zuen lehen bileran, Babesteko Aginduaren Ezarpenaren Jarraipen Batzordeak Protokolo bat lantzea erabaki zuen. Protokolo hori erakunde eta administrazio publiko ezberdinen ondorengo jarduketetarako esparru orokorra izango da, eta beste zenbait garapen-bitartekorekin zehaztuko da.

Protokolo honetan Jarraipen Batzordeko kideek elkarrekin jarduteko konpromisoak eskatzen dituzten alderdirik garrantzitsuenak sistematizatzeko, baliagarria izango da Babesteko Aginduaren tramitazioan hiru une bereiztea:

- a) Babesteko Agindua eskatzeko fasea. Bertan ezinbestekoa izango da biktimari Babesteko Aginduaren informazioaren eta inprimakien lorpena erraztea, baita komunikatzeko bide arinak ezartzea ere.
- b) Agindua hartzeko fasea. Bertan, prozesuan esku hartzen duten guztien koordinazioa bermatu behar da.

- c) Jakinarazi eta betearazteko fasea. Bertan protagonismo berezia izango dute gizarte-laguntza eta babesaren alorrean eskumena duten hala erkidego nola udal mailako administrazioek.

- IV -

Aurreko guztia kontuan izanik, Babesteko Aginduaren Ezarpenaren Jarraipen Batzordeak ondoren adierazten diren printzipio orokorrak ezartzen ditu. Printzipio horiek kide bakoitzaren erlazioen eta betebeharren esparrua definitzen dute, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua ezartzeko helburuarekin.

1.- HASIERAKO FASEA: BABESTEKO AGINDUA ESKATZEA

1.1.- BABESTEKO AGINDUA ESKATZEA

Babesteko Agindu hau, biktimak edo berarekin Kode Penalaren 153. artikulua adierazten dituen ahaidetasun edo afektibitate-harremanetakoren bat daukaten pertsonak eskatu ahal izango dute. Bestalde, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikulua 2. ataleko 2. idatz-zatiak xedatzen duen arabera, Lege beraren 262 artikulua aurreikusita dagoen salatzeko betebeharrak orokorraren kaltetan izan gabe, Babesteko Aginduaren oinarri diren gertakarietakoren baten berri duten erakunde edo organismo asistentzial publiko nahiz pribatuek, gertakari horiek berehala jakinaraziko dizkiote

Guardiako Epaileari edo Ministerio Fiskalari, babesteko agindua hartzeko prozedura hasi edo premiatu ahal izateko.

Ondoko leku hauetako edozeinetan aurkez daiteke: Komisaldegi, Guardia Zibilaren postu edo Polizia Autonomoen egoitzetan; Epaitegian edo Fiskaltzan; Biktimari laguntzeko bulegoetan, edo Administrazio Publikoen menpekoak diren gizarte-zerbitzuetan edo erakunde asistentzialetan. Era berean, Epaileak ofizioz edo Ministerio Fiskalaren eskariz erabaki ahal izango du.

Babesteko Agindua eredu normalizatu baten bitartez egingo da, eta ondoko ezaugarriak izango ditu:

- Erraztasuna, hau da, edozein pertsonak betetzeko modukoa.
- Eskuragarritasuna, erakunde eta organismo askotan lortzeko aukera izanik.
- Osotasuna, eskaera bakar batek neurri penalak, zibilak eta gizarte-babes eta laguntzarakoak hartzeko bidea zabalduko duelako.

Edukiari dagokionez, eskaerak oinarritzat hartzen duen zigor-zuzenbideko arau-hauspenezko (delitua edo hutsegitea) egintzen deskribapena barne hartu beharko du kasu guztietan, Prozedura kriminaleko Legearen 544 ter artikulua 1. atalean xedatutakoaren ondorioetarako.

Aurrekoaren ondorioetarako, Babesteko Aginduaren Ezarpenaren Jarraipen Batzordeak formulario normalizatu eta bakar bat onetsi du, aurrez adierazi diren ezaugarriak biltzen dituena. Formulario hori berehala txertatu beharko da Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren web-atarian, baita Batzordean barne hartuta dauden erakunde, administrazio eta organismoenak diren gainerako orrialde edo atarietan ere. Hori guztia, erakunde eta instituzio bakoitzak bidezkoztat jotzen dituen banaketa-modu osagarrien kaltetan izan gabe.

1.2.- BIKTIMAK INFORMAZIOA ERRAZ ESKURATZEA

Aginte publikoen jardunak kontuan izango duen printzipio orokorra, biktimak Babesteko Aginduaren eskaera-orriak eta honi buruzko informazioa erraz eskuratzea da.

Honela, Babesteko Aginduaren eskaera-orriak eta honi buruzko informazio garrantzitsua biktimaren eskura jarriko dira. Horretarako komenigarria izango litzateke:

- Babesteko Aginduaren formularioak eskura egotea organo judizial penal eta zibiletan, Fiskaltzetan, Biktimari laguntzeko bulegoetan, Herritarraren Arretarako Bulegoetan, Abokatuen Elkargoetako Orientabide Juridikorako Zerbitzuetan, polizia-egoitzetan, baita Administrazio Publikoen menpekoak diren gizarte-zerbitzuetan edo erakunde asistentzialetan ere.
- Edozein kasutan, formulario horiek internet bidez lortzeko aukera izatea, hala Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren atarian nola inplikaturiko gainontzeko instituzio eta erakundeen atarietan.
- Kasu bakoitzean, eskaera-formularioa Autonomia Erkidego bakoitzeko hizkuntza koofizialean argitaratuko da.

1.3.- ESKAERA AURKEZTEKO LEKUA

Legeak adierazten duen bezala, Babesteko Agindua zuzenean Aginte Judizialaren edo Ministerio Fiskalaren aurrean, Estatuko Segurtasuneko Indar eta Gorputzen aurrean, Biktimari laguntzeko bulegoetan, edo Administrazio Publikoen menpekoak diren gizarte-zerbitzuetan edo erakunde asistentzialetan eskatu ahal izango da. Eskaera jaso ondoren, berehala Guardiako Epaitegira bidaliko da, eta Epaitegi horrek Babesteko Agindua hartzeko beharrezkoak diren eginbideak egin ditzala eskatu ahal izango dio Polizia Judizialari.

Legeak ematen dituen aukera ezberdin horien barruan, esperientziak adierazten du kasu gehienetan biktimek salaketa poliziaren egoitzan edo Guardiako epaitegian aurkezten dutela.

Ondorioz, komenigarria izango litzateke Babesteko Aginduaren eskaera hori Polizia Judizialak landutako atestaturia erantsita duela iristea Epaitegira. Egokia izango litzateke, era berean, biktimak profesional baten laguntza izatea aginduaren eskaera betetzen duenean, baita Poliziaren aurrean aurkeztera laguntzea ere.

1.4.- GUARDIAKO EPAITEGIAREN ESKU-HARTZEA

Guardiako Epaitegiak Babesteko Aginduaren eskaera bat jasotzen duenean, ondoko egoerak gerta daitezke:

1. Egintzak hutsegitezkoak direnean, Prozedura Kriminaleko Legearen 964.2 artikulua hutsegite-judizioa berehala egiteko aukera ematen du. Eta osoko bilkura horretan Babesteko Aginduaren entzunaldia egin ahal izango da.
2. Egintzak delituzkoak direnean, Epaileak Babesteko Agindua hartzeko entzunaldiaren deialdia egin beharko du, biktimaren, inputatuaren eta deitu beharreko beste pertsonen bertaratzea bermatzeko beharrezkoak diren zitazioak aginduz.

1.5.- POLIZIA JUDIZIALAREN ESKU-HARTZEA

Ildo honetan, eta kasu gehienetan Babesteko Agindua Polizia Judizialaren aurrean eskatzen dela kontuan izanik, polizia judizialak dagokion atestaturia egingo du egintzak akreditatzeko, Epailearen erabakiak oinarritzat hartuko dituen beharrezko ikerketen burutzapenaren aurrerapena ezarritik. Horrela, tramitazioaren arintasuna bermatuko da, eta aldi berean Guardiako Epaileak Babesteko Agindua oinarritzeko elementu gehiago izango ditu.

Bestalde, bitarteko hau 38/2002 Legeak barne hartzen dituen eta nahitaez atestatu baten bitartez (Prozedura Kriminaleko Legearen 795 artikulua

ohiaren argudioa) hasi behar diren "epaiketa bizkorren" tramitazioarekin bateratu egiten da.

1.6.- ATESTATUA GUARDIAKO EPAITEGIRA BIDALTZEA

Eskaera Polizia Judizialaren aurrean aurkezten denean edo poliziaren bitartez Instrukzioko Epaitegiari jakinarazten zaionean, komenigarria izango litzateke Polizia Judizialek Guardiako Epaitegiraino Babesteko Aginduaren eskaera (atestatuarekin batera) bizkor eta arin komunikatzeko aukera ematen duen sistema bat finkatzea. Biltzen diren gorabeheren ondorioz ezinezkoa denean salbu, sistema hori telematikoki eratu ahal izango da.

2.- BABESTEKO AGINDUA HARTZEKO FASEA

2.1.- ZIGOR AUZI-BIDEAREN HASIERA

Babesteko Aginduaren eskaera orok nahitaez zigor auzi-bide zehatz bati, eta soilik horietako bati, loturik egon behar du.

Egoera prozesala kontuan izanik, ondoko egoeratako bat gerta daiteke:

- Babesteko Aginduaren eskaerak oinarritzat hartzen dituen egintzei loturik irekitako zigor auzi-biderik ez badago, Epaileak nahitaez dagokion delitu edo hutsegiteagatik zigor auzi-bidea hasi beharko du.
- Babesteko Aginduaren eskaerak oinarritzat hartzen dituen egintzei loturik irekitako zigor auzi-biderik badago, kausaz arduratzen den Epaile edo Auzitegiak biktima babesteko agindua erabaki ahal izango du, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikulua 11. atalak xedatzen duen bezala, bereziki biktimarentzat arrisku-gehikuntza gertatzen den kasuetan.
- Edozein kasutan, Instrukzioko Epaitegiak Guardia zereginetan esku hartu ahal izango du berehala jardun beharra justifikatzen duen presako arrazoiren bat dagoenean, banaketa-arauak aplikatuz (Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 5/1995 Erregelamenduaren 40.

artikulua) eskumena duen Epaileari edo Auzitegiari egin diren jarduketak bidaltzearen kaltetan izan gabe.

2.2.- EZIN DA ALDI BEREAN BABESTEKO AGINDU BAT BAINO GEHIAGO PILATU

Bistan dauden antolaketa eta koordinazio-arrazoiak direla medio, biktima bakoitza ukitzen duen Babesteko Agindu bat bakarrik egon daiteke. Honela, pertsona berdinarengan eragina duten zenbait babesteko agindu ezin dira pilatu.

Gaiaz arduratzeko eskumena duen organo judizialak Babesteko Aginduaren edukia aldatu ahal izango du zirkunstantziak aldatzen badira (*rebus sic stantibus*), adibidez biktimaren arrisku-egoera handitzen den kasuetan, baina ondoren ezin izango da jadanik eman denaren terminoekin kontraesanean dagoen beste Babesteko Agindu bat eman.

Presako kasuetan, guardia zereginetan dagoen Instrukzioko Epaileak ere babesteko Agindua aldatu ahal izango du, eskumena duen organo judizialari egin diren jarduketak bidaltzearen kaltetan izan gabe.

3.- BABESTEKO AGINDUAREN JAKINARAZPENA ETA BETEARAZPENA

3.1.- ZIGOR ETA SEGURTASUN-NEURRIAK

Guardiako Epaileak, egintzen larritasuna eta biktimak babes integralerako duen premiaren arabera, ondoko zuhurtasunezko neurriren bat erabaki ahal izango du:

- Behin-behineko espetxeratzea
- Hurbiltzeko debekua
- Egoitza debekua
- Komunikatzeko debekua
- Armak kentzea
- Beste neurri batzuk

Biktima babesteko gailu elektronikoen erabilera bultzatu beharko litzateke, batez ere erabakitako zuhurtasunezko neurrien ez-betetzea gertatzen denean.

Babesteko Agindua eman duen Instrukzioko Epaitegitik Poliziaraino komunikatzeko sistema arin eta bizkorra ezartzea beharrezkoa da. Biltzen diren gorabeheren ondorioz ezinezkoa denean salbu, sistema hori telematikoki eratu ahal izango da.

Bestalde, oso garrantzitsua da Segurtasun Indar eta Gorputz ezberdinak koordinatzea (Polizia Nazionala, Guardia Zibila, Autonomia Erkidegoetako Poliziak, Udaltzaingoa). Horretarako, beste zenbait tresnaren artean, baliagarriak izan daitezke Polizia Judizialaren Koordinaziorako Batzorde Nazionalaren lanak, baita Autonomia Erkidego, probintzia edota epaitegi-barruti mailako lankidetzak Protokoloak ere (AJKNren 5/95 Erregelamenduaren 47.4 art. eta AJKNren 2/2003 Instrukzioaren 8. art.).

Era berean, Babesteko Aginduaren aplikazioa kontrolatu eta haren jarraipena egiteko bitarteko egokiak ezarriko dira, batez ere biktimaren segurtasun-alorrean, non Segurtasun Indar eta Gorputzen esku-hartzea garrantzitsua gertatzen baita. Neurrien bat ez badu betetzen, inkulpatua atxilotu egingo dute, Kode Penalaren 468 artikulua zuhurtasunezko neurriaren ustezko hauste-delitua egiteari loturik.

3.2.- NEURRI ZIBILAK

Babesteko Aginduaren araubide berriak sartzen duen biktimaren babeserako berrikuntza ukaezina, Guardiako epaileak behin-behineko neurri zibilak hartzeko aukeran datza.

Jurisdikzio honen oinarri diren printzipioen arabera, neurri horiek biktimak edo bere legezko ordezkariak eskatu behar ditu, edo bestela Ministerio Fiskalak adin txikiko edo ezindutako seme-alabak daudenean. Eskatu ondoren, kontraesanezko eztabaidaren xede izango dira PKLaren 544 ter artikulua

aurreikusitako entzunaldian, eta ondoren Guardiako zereginetan diharduen Instrukzioko Epaileak dagokion autoa emango du.

Neurri horiek ondokoak izan daitezke: familiaren etxebizitzaren erabilera eta gozamendua esleitzea, seme-alaben zaintza, bisita, komunikazio eta egonaldirako erregimena ezartzea; elikagaien prestazio-erregimena; eta adin txikikoa arriskutik urruntzeko edo kalteak saihesteko bidezkoztat jotzen den edozein xedapen.

Bestalde, neurri hauek behin-behinekoak dira, hau da, denbora-epe jakin baterako indarraldia dute, eta ondoren Epaile zibilak berretsi, aldatu edo eraginik gabe utzi beharko ditu. Gogora dezagun Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikulua 7. ataleko 2. idatz-zatiak adierazten duela Babesteko Aginduan bildutako neurri-mota horrek hogeita hamar eguneko indarraldia izango duela. Eta zera gaineratzen du: epe horren barruan biktimaren edo bere legezko ordezkariaren eskariz familiako prozesu bat hasten bada jurisdikzio zibilaren aurrean, hartutako neurriek indarrean jarraituko dute demanda aurkeztu eta ondorengo hogeita hamar egunetan zehar. Eta epe hori amaitzen denean, eskumena duen Lehen Auzialdiko Epaileak berretsi, aldatu edo eraginik gabe utzi beharko ditu.

3.3.- JURISDIKZIO PENAL ETA ZIBILAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

Lege berriak guardia zereginetan duen Instrukzioko Epaileari zuhurtasunezko neurri zibilak hartzeko aukera ematen dionez gero, jurisdikzio penal eta zibilaren arteko koordinazioa garrantzitsua izango da.

Lehen koordinazio-arau bat Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikulua 7. atal berrian barne hartuta dago, izan ere, adierazten du Guardiako epaileak izaera horretako neurri bat hartzeko beharrezkoa izango dela jurisdikzio zibilaren organo batek hura alde aurretik erabaki ez izatea, Kode Zibilaren 158. artikuluan aurreikusitako neurrien kaltetan izan gabe.

Bigarren, Guardiako Epaileak hartutako neurri zibilen iraupen mugatuan txertaturiko koordinazio-helburua azpimarratu beharra dago. Horretarako, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikulua 7. atalaren bigarren idatz-zatiak adierazten du Babesteko Aginduan barne harturiko neurri-mota horrek hogeita hamar eguneko indarraldia izango duela.

Bi jurisdikzioen arteko koordinazioaren ondorioetarako, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Epaitegi eta Auzitegietako gobernu-organoek onesten dituzten arauzko tresnak baliagarriak izan daitezkeela, Ministerio Fiskalak koordinazio hori errazteko betetzen duen zeregin garrantzitsua ahaztu gabe.

3.4.- LAGUNTZA ETA GIZARTE-BABESEKO NEURRIAK

Legeak xedatzen duenaren arabera, Guardiako Epaileak erabakitako Babesteko Aginduak Herri Administrazioek (estatukoak, erkidegokoak eta tokikoak) aurreikusitako babes eta gizarte-laguntzako tresnak abiarazten ditu.

Babesteko Agindua arautzen duen legeak ildo bakarra ezartzen du biktimak eskatzen dituen babes eta gizarte-laguntzako neurri guztiak bideratzeko. Horretarako, beharrezkoa da inplikaturiko administrazioen arteko koordinazioa biktimari laguntza egokia emateko hark eskatzen duenetik, Babesteko Agindua hartu aurretik ere.

Babes eta gizarte-laguntzako neurriak hartzeko koordinazio, bizitasun eta eraginkortasunak ondoko ardatzak izango ditu:

1. Koordinazio Zentro bat ezarriko da Autonomia Erkidego bakoitzerako; Epaileak hari igorriko dio Babesteko Agindua, eta bertatik ahalbidetuko dira biktimak eskatzen dituen edo beharrezkoak diren laguntzak, betiere antolamendu juridikoak bildurikoak.
2. Komunikazio-sistema ere ezarriko da, lehentasunez telematikoa, Babesteko Agindua Guardiako Epaitegitik dagokion Koordinazio Zentrora bizkor igortzeko moduan.

3. Koordinazio-zentroak biktimaren premietarako egokiak diren laguntza eta babesa esleituko ditu, biktimek eskatzen dituzten laguntzetara denbora errealean heltzea ahalbidetuz.

Epaileak emandako Babesteko Agindua gaitzen duen baimena da, haren babespeko biktimak ondokoetarako aukera izan dezan, antolamenduak eskaturiko baldintzak betetzen badira:

- Gizarteratze aktiboko errenta aktiboa.
- Gizarte-laguntza: Abegi-etxea, eguneko zentroa, tutoretzapeko pisuak, zentro integralak eta abar
- Doaneko laguntza juridiko eta espezializatua (lehendik ere izan zezakeen).
- Doaneko laguntza psikologikoa.
- Biktimak hartara eskatu duen lurralde-esparruan aplikatzen diren erkidegoko lege eta arauak aurreikusten duten beste edozein laguntza edo babesteko neurri.

Emandako laguntzen iraupena, edukia, hedadura eta iraunaldia Administrazio bakoitzak ezarritako irizpideen arabera finkatuko da, betiere biktimaren premien eta haren familia-ingurunearen zirkunstantzien arabera.

3.4- BIKTIMARI LAGUNTZEKO BULEGOAK

Biktimari laguntzeko bulegoek funtsezko zeregina izango dute, informazioa etengabe emango baitiote biktimari inputatuaren egoera prozesalari dagokionez, eta baita harturiko kautela-neurriei buruzko hedadura eta iraunaldiari dagokienez ere. Aurrekoetarako, Babesteko Neurria erabakitzen duen Epaitegiak dagokion Biktimari laguntzeko bulegoari jakinaraziko dizkio aginduaren existentzia bera zein inputatua eraginpean hartzen duten egoera prozesalak, baita zigorraren exekuzio-fasean ere.

Biktimari laguntzeko bulegoen jarduera proaktiboa izango da, hau da, euren ekimenez jarriko dira harremanetan biktimarekin eta haren premia

posibleak aurreikusiko dituzte. Kontuan izan Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen 5. Gomendioak (2002), emakumeak indarkeriaren aurka babesteari buruzkoa, gomendatzen duen neurrietako bat ondokoa dela; “biktimak babesteko zerbitzu proaktiboak martxan jartzeko aukera bultzatzea, euren ekimenez biktimarekin harremanetan jar daitezen gaia polizia-zerbitzuei jakinarazten zaien unetik”.

Era berean, Biktimari laguntzeko bulegoen eginkizunak Babesteko Aginduen erregulaziora eta ezarpenera egokituko dira, biktimentzako laguntza hobetzeko. Hori dela-eta, prestakuntza-modulu berariazkoak bultzatuko dira euren zerbitzuak Bulego horietan ematen dituztenentzako.

3.5- ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKO ERREGISTRO ZENTRALA

Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikulua idazkuntza berriak xedaturikoari jarraiki, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Zentral bat ezarri behar da, Babesteko Aginduaren eraginkortasunaren mesedetan.

Erregistro Zentral honek koordinazio egokia beharko du izan egungo erregistroekin, Fiskaltzen Familiako Indarkeriako Zerbitzuak direla zein 3/2003 AJKN Instrukzioak sorturiko Etxeko Indarkeriako Erregistroak direla, informazioa modu eraginkorrean elkarbanatzea bultzatuz.

3.6.- ESPETXE-ADMINISTRAZIOA

Prozedura Kriminaleko Legearen 544 ter artikulua 9. idatz-zatia aplikatuta, babesteko agindua ematen duen organo judizialak haren berri emango dio Espetxe Administrazioari.

4.- LAGUNTZA JURIDIKOA ETA ORDEZKARITZA PROZESALA

Legelariaren laguntza garrantzitsua da tutoretza judizial eraginkorrerako eta defentsa eskubidea behar bezala jarduteko, batez ere Guardia-funtzioetako Instrukzioko Epaileak neurri zibilak ere har ditzakeela kontuan hartuta, betiere eragina badute etxea erabili eta baliatzeari, seme-alabekiko harremanari eta janariak prestatzeari dagokienez.

Eskubide horien jarduna ahalbidetzea komeni da, aplikagarriak diren araudien eta hitzarmenen arabera. Era berean, azpimarratzekoa da eraginpekoen laguntza juridikoko eta defentsa prozesaleko eginkizunak betetzen dituzten profesionalek prestakuntza espezializatua behar dutela.

5.- BABESTEKO AGINDUA ZABALTZEA

Erakundeak arrakasta izateko giltzarrietako bat biktimak Babesteko Agindua bera existitzen dela, eta haren ezaugarriak eta funtzionamendua ezagutzea da:

- Babesteko Aginduari buruzko triptikoak, iragarkiak eta gainerako informazio-materialak landuko dira, eta organo judizial penal eta zibilen, Fiskaltzen, Biktimen Arretarako Bulegoen, Herritarraren Arretarako Bulegoen, Abokatu Kidegoen Orientazio Juridikoko Zerbitzuen, polizia-bulegoen eta Herri Administrazioen menpeko gizarte-zerbitzu edo laguntza-erakundeen bidez zabalduko dira.
- Osagarri gisa, erakunde edo Administrazio bakoitzak egokitzen jotzen dituen zabalkuntza-jarduerak egingo ditu.

6.- PRESTAKUNTZA

Emakumeak indarkeriaren aurka babesteko Europako Kontseiluaren (2002) Ministro Batzordearen 5. Gomendioak (2002ko apirilaren 30ean harturikoa) adierazten duenez, beharrezkoa da «emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten dioten profesionalen prestakuntza espezializatua» bultzatzea, eta hori dela-eta, garrantzi handia izango dute erakundeek eta herri-administrazioek garatzen dituzten Prestakuntza Planek.

Diziplina anitzeko ikuspegia (eraginpeko profesionalek prestakuntza-jarduera berean parte hartzea oinarritzat hartuta) prestakuntzaren kalitatea hobetzeko mesedetan izango da, parte-hartzaile guztiak arazoaren ikuspegi desberdinez jabetuko baitira.